

IKASTETXEETAKO ZUZENDARITZEK LANPOSTU ZERRENDAREN (LPZ) APLIKATIBOA BETETZEKO AINTZAT HARTZEKO IRIZPIDEAK

LANBIDE HEZIKETA

Ikastetxeko Lanpostu Zerrendaren (LPZ) aplikatiboa betetzeko **Ikastetxe publikoetan langileak esleitzeko irizpideen** dokumentua hartu behar da kontuan.

Dokumentu hori 2025eko maiatzaren 9an eguneratu zen iazko greba eta mobilizazio dinamikaren ondorioz, akordio arautzailearen eranskin gisa; aurreko ikasturtearen aldean, hainbat baliabide gehigarri jasotzea lortu genuen.

LABek dei egiten die zuzendaritzei LPZn lanpostu huts (bakante) bezala irtengo diren lanpostu guztiei 2.HE izaera eman diezaiten.

LABek honakoa gogorarazi nahi die zuzendaritzei:

Lanbide Heziketan eta Bigarren Hezkuntzan euskararen presentzia handitzea helburua izanik, Lanpostuen hizkuntza eskakizunak funtsezkoak dira.

LPZren inguruko **ebazpenak** (2024ko uztailaren 9koa, Plangintza eta Antolaketako zuzendariarena eta Ikastetxe eta Plangintzaren zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako edo Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetan 2024-2025 ikasturterako ekintza guztiak burutzeko zenbat irakasle beharko diren eta zuzkidurak nola banatu behar diren zehazteko irizpideak arautzekoa) 5.4 atalak aukera ematen du lanpostuak euskalduntzeko, zuzendaritzak hala erabakitzen badu.



5.4.- Lanpostuen hizkuntza eskakizuna ezartzea

“c) Ordu guztiak gaztelaniaz emango dituzten lanpostuen kasuan, lanpostu horretan behin betiko destinoa duen irakasle batek betetzen ez badu, eta hurrengo ikasturteetan LHren euskalduntze-prozesuarekin jarraitzeko helburuarekin, 2. hizkuntza-eskakizuna beteta duten lanpostu bihurtu daitezke.”



666 771 794



lanbideheziketa@lab.eus



GIDA SINDIKALA

Maiz egiten ditugun galderei erantzuna



www.irakaskuntza.lab.eus

LAB
EUSKAL
SINDIKALISMO
ERALDATZAILEA